

Madres Mercedarias egoitzako LAB eta ESKren prentsa oharra

**Aldundiak beste alde batera begiratzeko jarraitzen duen bitartean,
Epaitegiek baliogabetzat jo dituzte Orozkoko Ibarako Madres Mercedarias
lan zentroan Fundacion Aliadosek ezarritako aldaketak**

Bilboko Lan Arloko 4 zenbakiko Epaitegiak epaia eman du, eta bertan deuseztat jo du Madres Mercedariaseko 14 langile igande eta jaiegunetan lan egitera behartzen zituen funtsezko aldaketa. Gainera, epaiak enpresa behartzen du langile bakoitzari 300 euroko kalte-ordaina ematera sortutako kalteengatik.

Espero dugu epai honek amaiera emango diela Fundacion Aliadosek Ibarako zentroko langile guztien aurka egiten dituen etengabeko gehigikeria eta erasoei.

Bizkaiko Foru Aldundiko arduradunekin bildu gara jakinarazteko ere aprobeztatu nahi dugu. Langatazka honetan duten erantzukizuna beren gain hartzeko eskatu diegu berriro. Beti bezala, ardurak ez dute bere gain hartzen, gure lan-eskubideak defendatzeko modu aktiboan esku hartu nahi izan gabe. Azpimarratu nahi dugu bilera horren esparruan Aldundiko arduradunek adierazi dutela zentroak hitzarmena duela Administrazio honekin 2023ko abenduaren 31ra arte. Baieztapen horrek ondorioz gabe uzten ditu Madres Mercedarias lan-zentroko zuzendaritzak langileen artean zabaltzen ari den mehatxu eta intoxikazio ugariak.

Fundacion Aliados eta Madres Mercedariasen negoziazio-borondate ezaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren jarrera arduragabearen aurrean, gure greba-egunekin jarraituko dugula eta mobilizatu egingo gara adierazi nahi dugu, gurea dena itzul diezaguten lortu arte.

Orozkon, 2022ko ekainaren 9an